

FUNTSEZKO SOZIETATEAK:

Hornitzaileen kasuan, hiriko toki ezberdinetan tapoien eta botilen zabor ezberdinak kokatuko genituzke. Honetaz aparte, dena ondo badoa bazkide plan bat sortuko genuke, non bazkideek abantail hugarri edukiko lituzketen.



Bazkide eta hornitzaileek paper garrantzitsua hartzen dute gure enpresan; izan ere, haiek gure produktuaren eta zerbitzuen parte direlako, hain zuzen ere, gure enpresaren gertaera edo erabakiak hartzerakoan, haiek ere eskubidea dutelako etorkizunari begira zer egingo den erabakitzeko, eta produktuaren garapenean sartuta daudelako. Horrez gain, gure arrakasta haien esku dago, haiek enpresan zeregin handiak dituztelako, adibidez, hornitzaileak enpresak erabiltzen duen materialaren banaketaz eta horren horniduraz arduratzen direlako, eta beste aldetik bazkideak enpresaren garapenaren sustaketaz eta alderdi ezberdinetaz adi egoten direlako. Zeregin horiek ez badira betetzen, enpresaren egoera geldirik geratuko litzateke eta ez genituzke beteko buruan ditugun helburu ezberdinak. Etorkizuneko helburuak zein orainaldikoak.

